

bid egileak



Joan Inazio Goikoetxea *Gaztelu* (1908-1983)

Egilea:

JOXE MARI ARANALDE

Zapateriko Don Inazio

SR orrela izendatua zen gu txikiak eta gazteak ginenean Joan Inazio Goikoetxea Olaondo jauna: *Zapateriko Don Inazio*.


Guk 1947 inguru horretan ikusi genuen lehenengo aldiz herrian. Ameriketatik zetorrela esan zitzaigun, han dozenaren bat urte eginda.

Bizarra eta kaputxadun sotana zituen bere ezaugarririk nabarmenenak. Hottzak guztiz uzurtua eta kuzkurtua ikusi genuen egun haietan. Gabonak inguru hori izan bide zen, hemen ibili zen garaia, gero berriz Ameriketara joateko.

Baina Gaztelu herri-izen horrekin izanda ezagutua eta deitua, batez ere, eus-

kaltzaleen artean. Mozorro hori erabili izan du berak maizenik.

Ezizen hori jaioterriarena du, kaputxinoen legea baitzen herriaren izena hartzea. Gipuzkoako herri txiki bezain eder horretan agertu zen mundura. Ohore hori egin dio, beraz, bere sorterriari bere euskarazko lanetan. Bihoakio esker ona.



Joan Inazio Goikoetxea *Gaztelu* (1908-1983)

Beste izenetako bat, Bordatxuri du gazteluar honek. Izen hori, etxe-izena da berez, berak idazle-izen bihurtu bazuen ere gero.

Ez da edozein etxeren izena. Haren jaite-txearena da. Gazteluko *Bordatxuri* baserrian jaio zen, guk *Zapateriko Don Inazio* esaten geniona.

Domingo Goikoetxea jauna eta Prantxiska Olaondo andrea izan zituen guraso. 1908ko maiatzaren 5ean jaio zen, eta Joan Inazio izen bikoitzez bataiatua. Oso txikia zela pasa ziren

Bordaxuritik Zapateri baserrira. Haatik *Zapateriko Don Inazio* kontu hori.

Ez zen bakarra jaio guraso haiengandik. Asko ziren senideak. Hamar. Hona: Bittori, Florentxi, Joakina, Juxto, Engraxi, Maria, Joan Inazio, Lorentxa, Joanita eta Maximo.

Bat bada isilik utzi ezin dudana: Juxto. Ia bere bizi guztian herriko organista izan zen. Orain han dago isilik armonium eder hura. Beste hark beste hura bezala, nik ere «penaz ikusten dut» isilik.



Agintari hauek ezagutu zituen Joan Inaziok sei urte zituenean: Santiago Lara, erretorea; Bartolome Etxeberria, alkatea; Timoteo Etxeberria, alkateordea; Joan Garro, sindikoa; eta Jose Etxeberria, Jose Goikoetxea eta Bartolo Etxeberria zinegotziak

Txixpiri

Bordatxuri izen polita da, eta bere borda horrekin, etxe-izen zaharretako kerua du. Dakigun bezala, gaur beste zerbait bada ere, jendeen bizitoki zen delako borda hori. Joan Inazioren jaitetxe hori bakarrik da Gaztelun horrela deitua. Zaharrena ote?

Hala balitz, zaharrago baten auzo besterik ez litzateke izango. Hantxe dauka bere ezker-raldean *Txixpiri* (gazteluarrek *Txixpii* esaten dute), historiaurreko jendeen bizitoki izandako hartzuloa. Duela hirurogei bat urte desegin zuten miatzaile baldar batzuek. Ez da galdu den monumentu bakarra Gaztelun! Izena eman ziona hasteko. Eta gainerakoak!

Beraz *Txixpiri* eta Joan Inazioren jaitetxe *Bordatxuri*, Gazteluko jendeen bizitokirik zaharrenak?



Joan Inazio gaztea fraidetarako prestatzen Altsasu, Zaragoza, Hondarribia, Lizarra eta Iruñean barna



Bordatxuri baserria, Gazteluren sortetxea



Zapateri baserrira aldatu zen Goikoetxea Olaondo familia don Inazio txikia zela



Joan Inazio txikia zen garaiko Gaztelu herria

«Hain txukuna zen»

Bere amarengatik esaten du hori. Olerkitxo bat ere badio eskainia «Ama» izenarekin. Hain zuzen, Aitzoli bidali zion Llavallol herriko Euskal Echea-tik 1936ko martxoaren 3an, *Yakintza* aldizkarirako.

Erdi ninduzun ta bulartu,
bular-esneaz elikatu

Begiz begi, aoz ao
magal gozoan etziñik
azi ninduzun semetzat bero
ni baitan antza berarturik:
mendu berbera ta ber-mintzo.

Azirik nauzu geroztik.
Zure ederra lortu nairik,
ona, Ama, nere loratze berri:
adimen-biotzez sort-igali.

Huraxe andre txukuna! Hura ezagutu genuen guztiok konforme gaude semeak egiten dion laudorioarekin. Behiak jeizteko ukuiluko aukia ere garbia beharko zuen hark.

Horrelako andrearen inguruan ari da, beraz, handi egiten gure mutikoa. Aitaren aitamen berezirik ez diogu ikusi. Baina bai besterenik.

Horra aitonaren aitamena. Eta hura aipatzearekin batera, bere txikitako ofizioa kontatzen du.

«Hil nadinean» du izena olerkiak. Ameriketatik etorri berrian egina zuen. Larte mendian hartu nahiko lukeela lur-eta ari da esaten, eta honela dio gero: «Orain ez da han ardirik ez artzainik haurtzaroan ohi bezala aiton-iloba giñanik». Esateko modua bihurri antxa; baina polita esana. Aitonaren lagun artzaintzan dabil gure mutikoa. Ederra konpainia eta ederra ofizioa. Eta gustukoa, nik, uste, haur guztientzat.

«Hemeretzian», kaputxino

«Hemeretzian», 1919an. Hori du urtea artzaintza, eta *Zapateri*, eta aitona, eta Gaztelu uzteko bere II urtetan.

Ez zaigu esaten zeinek gidatuta edo zerk erakarrita; baina badoa fraide kaputxino izateko asmoarekin gure mutikoa.


Esolan «ezetz joan» esaten diote lagunek, zer asmo duen jakin dutenean. Baina handik lasterrera, kaputxino joan zela *Zapateri*ko

Joan Inazio mutiko polit hura. Edo Joanixio ote zen zihoana?

Altsasu, Zaragoza, Hondarribia, Lizarra eta Iruñea. Horra gure kaputxino gaiaren ibiliak bere ikasketetan, frantziskotar bizardun izatera iristeko prestaketan. Batean ikasketa mota batzuk, bestean jardun berezi batzuk, bestean beste ikasketa mota bat, eta horrela batetik bestera, fraide mezadun izatera iritsi arte.



Domingo Goikoetxea eta Prantxiska Olaondo beren hamar seme-alaba, suhin, erregina eta bilobaz inguratuta, 1933an, Joan Inazio apaiztu zenean



Aita Gaztelu, meza berria eman zuenean

Eta bidean ia-ia galtzen du etxeko eskola. Hona zer dioen 1980ko *Oh! Euzkadi!* aldizkari-ko 5. alean:

Ni Altsasura joan nintzan ta, bigarren urterako gurasoekin ez nezakeen euskeraz hitzegin, dena ahaztu egin zitzaidan. Orain, ulertu, dena ulertzen nien; baiña ezin erantzun.

Eskerrak, egoera horretaz jabetuta, jaun bat, «Aita Jose Luis azkoitiarra, oso pianista ona, euskerazko klaseak ematen» hasi zitzaien.

Zaragozan-eta ez zuen «ezer egin» aldizkari horri aitortu zionez. «Eta non, eta Iruñean bilatu nuen giroa ikasteko». Izan ere, han zeuden «Aita Iraizoz, Aita Bonifazio Ataungoa» eta horrelakoak.

Handik aurrera izan zuen non bildua Larteko hazkurri bera gure artzainkoak.



Loramendi Gazteluren ikaskidea

Apaiz: 1933

Urte seinalatua gure Gaztelurentzat 1933. urte hori. Urte horretan egiten da apaiz. Urte horretan hiltzen da haren maisu mires-tu Lizardi. Eta urte horretan hiltzen zaio bere ikaskide eta gogaide izan zuen Bedoñako Joan Arana Ezpeleta *Loramendi* poeta gaztea ere. Zer harria euskal poesiarentzat urte hori!

Apaiztutako urtean, Aragoiko Ijar deitu lekura bialtzen dute apaiz lanetara. Baina ez bide zen beti han egon. Orduko gazteluarrek gogoan dute nola ikusi izan zuten Aralarko San Mielen, hango egun handietan,



Aita Gaztelu bere iloba batzuekin, 1933an

jendea konfesatzera joanda Altsasuko komentutik.

Garai horretan etortzen zaio soldadu joan beharra. Eta nora, gainera, eta Afrikara. Joan ez dadin, Filipinetara izendatzen dute misiolari, baina ez da joaten.

Izendapen hori ez dakigu bere eskabidez izan zen edo agintariek beren gogara egin zuten. Ez eta ere ez dakigu zergatik ez zen konplitu izendapen hori eta ez zen joan «Pilipinetan barrena» gure Gaztelu.

Argentinara

Filipinetaraino ez, baina urrun bai joan zen gure Gaztelu soldaduskari ihes 1935ean. Bazen bide bera hartutako euskaldunik hura baino lehen.

Joan Inazioren bizitza kontatzen duten guztiek ahazten edo ezagutzen ez duten data bat da hori. Gerrak uxatu zuela hemendik diote denek. Ez da horrelakorik. «35ean joan nintzen Argentinara.» Beraz ez da gerrak «barreiatutakoetako».

Barreiatutakoekin elkartzeko aukera bai izan zuen zoritxarrez Argentinan. Entzun: «Ordun joan ziran Euskal Etxera, Argentinara, Aita Jorge Riezu, Aita Fermin, Aita Mikel, ez dakit zenbat. Bidaldu zituzten hogeit hamar fraile gutxienez, bengantza bezala. Aita Ladislao mistiko faltsu baten bengantza izan zen». Horra gerrari ihes egin ahal izan zion hark non besarkatzen dituen gerrak uxatuak.

Han bizi izan zen 22-23 urtetan gure Gaztelu. Llavallol, Cordoba, Mar de Plata eta Mendoza izan zituen bizitoki. «Hamabost urtez» aritu zen irakasle Euskal Etxean. *Itzulpen Lehiket*an saritua izan zen 1948. urtean. 1952an utzi egiten du kaputxinoen ordena eta apaiz sekular gelditzen da. Mendozako elizbarrutiko egiten da orduan, eta hango gotzainaren esanetara pasako ditu azken sei urteak. «Qué pena» esan omen zion gotzainak, hona zeto-rrera gaztigatu zionean. Sinesten diot esango ziola.

Eta «idazlanean maisu» aitortzen duen Orixerekin elkartzeko ere izan zuen egokiera Argentinan. Hona Gazteluren hitzak: «Ameriketako itzulia egin zuenean, Buenos Airesen eta Euskal Etxea ikastetxean nik lagundu nion» (*Zeruko Argia*, 1972-V-28).

Han egin arazi zion ere, edo egiteko egokiera prestatu, Orixeri harako «J. S. Bach'i elizan» *olerki* paregabe hura. Gaztelu organoan aleman mirestuaren fugaren bat-edo jotzen, eta Orixe otoitzean organistaren musika entzunez. Otoitzaldi haren berri eman ez egin dago poesia original eta liluragarri hori.

Eta balia dezagun une hau, haren eta Orixeren arteko ahaidetasunaren kontua garbitzeko. «Orixe bere ahaidearen laguntzaz» (*Deia*, 1983-I-8) egin omen zuen bere *Musika ixila* Gazteluk. Egia da elkarrekin egin zutela lan; baina ez da egia, behin eta berriz errepikatzen den arren, biak ahaide zirenik.

Nondik sortua liteken oker hori? Haren amaren anaia eta Orixeren arreba zaharrena elkarren senar-emazte izatetik, nik uste. Gure amaren gurasoak ziren horiek. Haatik zen gure ama Olaondo Ormaetxea, eta Gaztelu, berriz, Goikoetxea Olaondo. Gure ama zen Orixeren iloba eta Gazteluren lehengusu; baina Joan Inaziok ez zuen orexarrarekin ahaidetasunik. Ni naiz bien ahaide.

Euskal herrira betiko

tzerritik 1958an biltzen da azkenekoz eta betirako etxera, eta Euskal Herriko hiririk ederrenean jartzen da bizitzen: Donostian. Zenbait urtez *Hermanos Corazonistas* delako kolegioan izan zen kapilau. Kendu zuten arte.

Fraide izan eta apaizetara pasatzen zirenentzat bazuen Lorentzo Bereziartua gotzainak halako onartezin bat, eta hark kendu zuen. Eta kanpora joateko esan. Esan bai, baina behartu ez zezakeen egin, eta gure fraide apaiztuak bertan segi zuten bizitzen. Hemen ere eta honetan ere nozitu beharra tokatu zitzaion gure gazteluar bihozberari.

Auñamendi editorialean eskatu zuen orduan lana eta han eman zioten

Estornestarrek. Gerozkoan hor egin zuen lan jubilatu zen arte.

Joan Inazio Goikoetxea 1983an hil zitzaigun. «Hori dugu lehengo Errege egunak ekarritako oparietako bat» esan nuen orduan *Argia* astekarian. Urte horretan eta egun horretan hil zitzaigun Joan Inazio Goikoetxea Olaondo *Gaztelu* poeta.



Ameriketatik itzultitakoan ongi hartu zuten ilobek Joan Inazio osaba

Langile isila

Izaeraz pertsona nolatsukoa genuen esateko, ez dago ezer asko idatzita. Ezer ez ia.

«Isil-isilik lanean ari den euskal olerkaria» dela dio Errialde-k berari egiten dion elkarriz-



Iturri baten ondoan bere iloba eta lagunekin



Ilobekin Italian barrena

keta batean (*Zeruko Argia*, 1972-V-28). Ez dago gaizki. Ez zuen kukurrukurik. Ez zuen arrandiarik. Ez zen bere balioak hots egin zale. Langile isila zen.

Neronek, hura hil berritan, hala nioen: «Nik, familiako bat gutxiagoz gain, lagun bat gutxiago badut orain, lagun garbi, lagun argi eta gozo bat gutxiago» (*Argia*, 1983-II-27).

Apaltasun atsegin bat bazuen, irribarre errazarekin batera, halako goxotasun eta argitasun gustagarri bat ematen zizkiona. Ez zuen ertzik, edo izatekotan, leunduak zituen.

Izu puntu bat ere bazuen; eta inoiz edozeinek izan dezakeen zakarraldi erasokor hori, tartean irritxo bat sartuz, bere horretan itzaltzen zitzaion gure gizonari. Ez dut uste ondoko pertsona txarrik bazuenik Joan Inaziok.



Gaztelu bere iloba Agedirekin

Pentsaera irekikoa

Edozeinek dakien bezala, gure pentsamenduak badu gure izaerarekin loturarik, eta haren pentsaerak erakutsi diezaguke, zerbait baino gehiago, haren giza irudi osoago bat egiten.

Berak bere buruaz pentsatzen duena guztiz adierazgarria da. Kazetariak esaten dio: «Zuk baduzu progresista imajen bat-edo euskaltzaileen artean». Eta Joan Inaziok: «Egia da, ni beti ezker aldekoa izan naiz, progresista esaten dena, aspalditik, beti izan dut joera hori» (*Oh! Euzkadi!*, 1980, IX).

Eta ale berean zeharka esaten duen honek ere gauza bera esan nahiko luke: «*Pott tropikala* eta zuen *Oh! Euzkadi!* oiek noiz aterako zai egoten naiz». Hirurogeita hamabi urte baditu Gazteluk gauza horiek esaten dituenean.

Badu ere mamirik sentidu berean, *Radio San Sebastián* deituan egiten duen tertulia batean esaten duenak. Hala dio: «Como se ve, mi formación poética ha sido heterogénea y ecléctica y puedo decir que entre los poetas euskéricos de mi generación soy el que más ha evolucionado al pulso del tiempo».



Mendiko ibilian nekatu ondoren, Joxe eta Agedi ilobekin



Engraxi ilobarekin etxeko egongelan



Aita Gaztelu Joxe eta Agedi ilobekin
Euskal Herriko bazterrak bisitatzen



Joxe iloba eta Engraxi Berakoetxea,
Agedi eta Joxe Luis Setienekin



Atsegin zitaion Gazteluri belartzean esertzea

Aburu bera erakusten du, lehen esandako *Oh! Euzkadi!* berean. Kazetariak zer egiten duen apaiz progresista batek galdetzen dio «Donostiako kaleetan» «mila bederatzireun eta larogeigarren urtean». Eta honela erantzuten dio gure Gazteluk:

Nik besterengatik ez nizuke esango, zeren ideologia aldetik oso atzeratuak daude gehienak [...] apaiza beti atzeratua dago ideologia aldetik. Orain, nere aldetik pena handia ematen dit holako giroan bizitzeak.

Ez dago, beraz, duda handirik Gazteluk progresistatzat daukala bere burua, bai poeta denez eta bai apaiz denez. Baina progresista edo aurrerakoi izateak ez du esan nahi izen horretako edozein ideologiarekin konforme dagoenik.

Delako *Oh Euzkadi!* horretako kazetariak zer egiten duen galdetzen dio, edo hobeki esan, zertaz hitz egiten duen Patxi Iturriotzekin, Avenidan zehar harekin paseatzen dabiltzanean.

Hona erantzuna: «Laguna det aspalditik, eta horregatik ibiltzen naiz. Ni ez nago konforme haren ideologia guztiarekin, ezta?; baina atsegina da lagun bezala, eta horrela ibiltzen naiz berarekin». Dakigun bezala, Patxi Iturriotz EMK-ko buruzagi izana zen. Horregatik da galdera.

Edozein ideologia progresista izenekoak ez du, beraz, bereganatzen gure olerkari gazteluarra. Baina progresistatzat daukala bere burua eta beti horrela izan dela gure Gaztelu. Hori da bere buruaz daukan aburua.



Joan Inazio Agedi eta lagun batekin

Gizona bere herrian

Ikusi dugu zer pertsona klase genuen gure Gaztelu eta ikusi dugu berak bere burua nola-ko ikusten zuen. Jakin dezagun orain bere herriaz zer iritzi duen gure poetak.

Honela egiten dio galdera *Oh! Euzkadi!* aldizkariak: «momentu txarra da poesia egiteko».

Hona poetaren erantzuna:

Momentu txarra da, eta gizarteari begira, oso txarra, esan nahi det, elkarren kontra gabiltzala edozergatik, eta traidore bezala jartzen zaitue biolentziaren kontra ateratzen bazera. Leku batzuetan, edo jende batzuren artean behintzat, horrela nora joan daiteke? Osea, irrespontsableak bilatzen ditut nik, euskaldun asko irrespontsableak. Irrazionalitate haundia sartu zaigu gure herrian. Lehenago aritu naiz independentziarekin oso lotua ikusten dudala euskara.

Jakina, independentzia noizpait etortzen bazaigu, oso urruti dago, ezta? Baina, hortxe dabilta, independentzia, independentzia, independentzia. Eta horren kontra ezin zintezke atera. Baina independentzia lortuko bagenu, nolabait ere elkarren kontra aterako ginateke, hori seguru, kapitalista zeralako, edo burges zeralako, edozergatik elkarren kontra, elkar hiltzen. Zer etorkizun nahi duzu ikustea horrela? Arrazoi pixkat, zentzu pixka batekin ez badugu jokatzeko, zer etorkizun letorke Euskal Herrian? Eztakit, eztakit, eztakit [...]. Gero eta gutxiago entenditzen det, gauden giroan gero eta gutxiago entenditzen det.

Ez da berriketa gure euskaltzale eta abertzale eta olerkari fin honen testigantza. Hori salaketa gure Herriari! Hor ere gure gizonaren bihotza ikusten da, gure gazteluar maitagarri honen izaera.



Gaztelu, iloba Engraxi bere haur batekin eta adiskide batekin



Aita Gaztelu ahaide eta lagunekin elurretan

Idazle

*A*kintza aldizkaria testigu, idazle goiztiarra dugu Gaztelu. Hona, berak esanda, nola hasi zen: «Aitzolek atera zuen *Yakintza* aldizkaria, sortu zituen Lorejokoak, ta lehenengo saria eman zioten Lizardiri (lehen urtean Lauaxetari, eta hurrengoan honi), ta horrek kutsatu ninduen, erabat, eh, erabat» (*Oh! Euzkadi!*).

Lore Joko, Euskal Jaiak eta abarren ondotik, Euskal Egunak, Euskal Haur Egunak, Antzerti Egunak, Eleberri Egunak, Bertsolari guduak eta Eusko Olerti Egunak antolatu ziren 1926-36 hamarkada horretan.

Olerti Egunak Erreterian, Jautarkolen omenez (1930); Tolosan, Emeterio Arresen ohoretan (1931); Hernanin, Iturriagaren oroitzapenez (1932); Urretxun Iparragirrearen goratzarrez (1933); Zarautzen, Lizardiren aipuetan (1934); Bedoñan, Loramendiren gogoangarri (1935); eta Lekeition, Resurrección Maria Azkue apai-zaren eta berorren aita zen Eusebio Azkue idazlearen aitormenez (1936).

Giro eta arrakasta horrek kutsatu zuen Gaztelu, berak aitortzen duenez. Kutsatu eta nolako ilusioz hasi! 36an Argentinatik Aitzoli idazten dion eskutitz batean hala dio: «Igaz bidali nuana motela nonbait, etzidazuten sari-tu-ta». Sariraino iristeko gogoarekin eta uste-arekin hasten da gure Gaztelu poeta.

Maisuak

Berak ezer esan ez baligu ere, bagenekien maisuetako bat bederen zein izan zuen, 1935eko martxoan Aitzolek kontatzen duen hura entzunda. Muttitegi aldera doaz lagun batzuk, bigarren urteurrenez haren oroitarria bisitatzera. Eta hor non ikusten duen Aitzolek «un religioso de pardo sayal arrodillado» Lizardiren monumentuaren aurrean. Lora-mendi datorkio bat-batean burura.


Gizajo Aitzol! Lizardi hil eta hamaika egunera hil zela badaki Loramendi Aitzolek. Baina huraxe etorri burura! Zein izango gure fraidea Lizardiren oroitarriaren aurrean belauniko Muttitegin, eta Aita Gaztelu, Joan Inazio Goikoetxea, bere lehenengo maisuaren ize-nean eraikia dagoen oroitarriaren aurrean. «La primera influencia que recibí en mi juven-

tud fué la de Lizardi, prodigio solitario de las letras vascas» (*Radio San Sebastián*). Horra bere lehenengo maisuari ohore egiten Ameriketara abiatu aurretik.

Eta haren eraginaren ondoren, beste harena dator: «Luego fué la de Orixé, la figura más grande de toda la literatura vasca». Horra hor Gazteluren euskal maisuak. Ez gero edozein!

Erdal maisuetan-edo, horra zer zerrenda ematen digun: «R. Tagore, Witman (de quien tengo traducidas al euskera las mejores poesías), Aragón, Eluard, J. R. Jimenez, Alberti, P. Neruda, Hernandez, León Felipe, Gerardo Diego, Celaya, Blas de Otero, etc...».

Badakigu orain zein larretan ibilia den Larte mendian artzaintzan bere burua ezagutu zuen hura.



Aitzoli 1936
Ameriketatik egindako
gutuna




Yakintza-n, 1935ean, argitaratutako olerkia

Etekin

Gure Gaztelu, 1934an *Yakintza* aldizkarian idazten hasi zen hura, orduko eta ondorengo euskal komunikabide gehienetan hor ageri zaigu, bai bere poesiak eskainiz eta bai bere kolaborazioak. Hor daude lekuko *Zeruko Argia*, *Egan*, *Euzko Deia*, *Euzko Gogo* eta *Oleri*. Itzulpen lanak ere ez dira urriak. Sari bat ere badu irabazia lagintza horretan, Buenos

Airesen hain zuzen, 1948an. *Parnaso colombiano en euskera* ere Buenos Airesen publikatzen da 1968an. Bernardo Estornes Lasaren *Orreagako kanta* ere Gazteluk itzulia da. Baita *Kixmiren kanta* ere. Argitara gabe da, berriz, oraindik Estornesen *Cantar de Euskalerria*.

Sail honetan sartu beharko litzateke Orixeren *Euskaldunak poema eta olerki guziak* ere. Salbu *Euskaldunak* eta *Barne-muñetan*,



Gauetan oihu



Biziaren erroetan



Diccionario



Kixmiren kanta



Musika Ixila



Antologia

Joan Inazio Goikoetxeak itzuliak dira liburu horretako ia olerki guztiak. Obra handi hori argitaratzeko prestatzea ere, Orixeren biografia labur bat eta guzti, ez da berriketako lana.

Horrez gain, *Diccionario vasco-español* dago tartean. Hasi eta bukatu gabe utzia, baina hori lan puska! Zenbat ordu eta ahaleginen fruitua ote dugu hiztegi hori.

Hala ere beraren lanik ezagunena *Musika ixila* izan daiteke, Orixe aldamenean zuela egina; baina hura hil eta gero argitaratua. Donibane Gurutzekoren eta Leongo Frai Luisen olerkiri hoberenen itzulpena dira, Gazteluk metri-kazko aburuak erakusten dituela.

Hona Koldo Mitxelenaren iritzia obra horretaz: «Gutxi bezain liburu joria eta ugaria eman digu Goikoetxea jaunak, gutxitan landu den sail bat lantzen duena, gainera. Euskal poesiarren atzeaz eta geroaz kezkatzen denak usu erabiliko du, ezpairik gabe, esku-artean» (*Egan*).

Orixek, berriz, hona zer dioen liburuan bertan: «Xoragarri zaizkit niri (itzulkizunak), ta ala zaizkiela, nik uste, gaiñerakoeri. Zearo zintzo egiñak, eta ortatik asi bear da. Oso tokigune gutxitan ez dira irixten iatorrizko-ra[...]. Itzultzaileak ez du errua beure; izkuntza da irixten ez dena, oraindik ez baitakagu ongi egiña gauza guztietarako. Erabat esan, iatorrizkoa berdintzen du eskuarki».

Ez dira nornahiren iritzia bien ala biak ere.

Olerkari saritua

Gure Joan Inazioren etekinik berezkoena olerkia dugu. Beste lan asko soldataren agindura eginak dira. Hau ez. Hau bihotzaren agindura egina da. Eta lan horren balioa aitortu zitzaion, behin eta berriz aitortu ere. Lehen aipatu dugun Aitzolen hartan hala dio tolosarrak: «Era el vate capuchino Gaztelu, seguidor fidelísimo de 'Loramendi', tan magnífico de forma sonora y riqueza y exuberancia de imágenes como este». Bada zerbait esatea, eta hain goiz esatea.

Iritzi berekoak izan bide ziren 1959an aipamen bereziz ohoratu zutenek *Loramendi* izeneko sariketa hartan. Baita 1961ean *Olerti* saria eman ziotenek ere. Gauza bera usteko zuten ere 1970ean eta 1971n *Irun Saria* bitan segidan eman ziotenek. *Gaean oihu* du izena lehenengoak eta *Biziaren erroetan* bigarrenak. Bi liburuxka ezberdinetan argitaratuak biak.

Zer esan Gaztelu poetaz? Sariak esaten dute zerbait baino gehiago; baina hona hemen zerbait iritzi:

«Gazteluren baliorik haundiena olerkaritzan datza. Apala ez ezik, barnerakoiegia zen bere gogoaren garra herriaren aurrean kementsu agertzeko, eta horrek ezkututzen zuen gure uste zintzoan oso goiko mailetan jarri behar zuen olerkariaren izena» (*Hoja del Lunes*, 1983-I-31). Horra Joan San Martinen esanak, bera ere olerkari fin baden harenak.

Xanti Onaindia zenak ere badu hitz ederrik Gaztelurentzat: «Olerki sakon, giar, guri, gori eta malatsak ditu» (*Milla Euskal Olerki Eder*).

Jaime Aizpitartek, berriz, honela dio: «La poesía de Joan Inazio Goikoetxea *Gaztelu*, cuyas muestras hemos empezado a gustar desde estos dos volúmenes, nos aventura la promesa de un auténtico poeta de voz recia y dolorida» (*Unidad*, 1971-VII-14).

Hona gure Gazteluren olerkia onartua eta onetsia.



Gaztelu herrian Joan Inaziori jarritako Oteizaren oroitarria

Azken hitz bat

Hil eta ondoren hartan bertan eskaini nizkion hitz batzuekin bukatu nahi dut. Hala nioen *Argia* astekarian: «Poeta bihozpera eta maita-bera bat (zen) batez ere. Haatik kantatu ditu maitasuna eta mina hasi eta buka. Hor daude harako *Maitasun-garra* lehenengoetako hura eta honako *Biziaren erroetan* azkeneko hau. Hura Maitearekiko “eztai-bestak” sumatuz bukatzen du eta hau “malko guzien pisua [...]»



Juxto anaiarekin, Gazteluko organistarekin, kontu-kontari



Ezkontza bateko meza ematen Aldabako elizan, 1980an

amets guzien errautsa” kontatuz. Bada bide-rik bi horien bitartean! Gizon baten historia dago tartean, gizon maitabera baten “on poz min gozo nigar hasperen” guzien itsasoa.»

Yakintza aldizkariaren hamahirugarren zenbakian, 1935eko ilbeltz-otsaileko alean *Begian negarra* izenez argitaratu zuen *Atzerri-kanta*-n ere ederki ikusten dira herrimina eta amaren beharra. Ez ziren alaiak izango atzerriko 22-23 urteak!

Ibaika datorkit begitik negarra.
Zauria bai baitut biotzean
atzerri-arantzez yosia.
Nork zauritu biotz-lilia?
Arantzdun dalarik yakiñean
nork dagit biotz-ertsipen ain gogorra?...

Biotza sorburu, begiak iturri,
ibai antzo sor zait abesmiña:
ugñez gain apar-anditsu...
Eres-otsik, ertzez, ez duzu.
Txoriak ixil. Aiots illuna
bakarrik: illetarien miñ-iyurri.

Ai, Ama! Altzoan oraiño nik abes.
Egun ostera atzerri-kanta
biotzak: ikaraz, ler-urren.
Ar egizu, ugerra-arren,
begi itunen malko-ureta.
Biotz autsiari darion illeres!

Bai dudan itun ibai onen yoana!
Ezin baitut nik zurera egin.
Zugan gozoa... ni atzerri!
Malko-ibaiez ere ibil-ontzi
al-izatea, ene errimin
larri onek ar lezake atsedena.

Ama! Abes ote txoriak kaiolan?
Lurrin dario lorak nere baratzan?
Ala dut ixil, al zait igar...?
Baiezkoan, ar bezate, ar!
norberak yarduna len ain alaiean.
Itunago ager nadin erbestean!



Gutunaren sinadura

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Joxe, Agedi, Engraxi eta Iñaki ilobak*
- *Koldo Mitxelena Kulturunea*
- *Auñamendi*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1866-5 (Lan osoarena)
84-457-1869-X

L.G.: VI-554/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística